

	<b>PParen HIZKUNTZA</b> <b>POLITIKAREN DOKUMENTUA</b> <b>DOCUMENTO DE POLÍTICA</b> <b>LINGÜÍSTICA DE LA APP</b>	<b>FHK-FGL-001</b> <b>Ber / Rev. 01</b>
		<b>Data / Fecha:</b> 2011/03/01
		<b>Orrialdea / Página:</b> 1 / 2

## PASAIKO PORTU AGINTARITZAREN HIZKUNTZA POLITIKA

### Sarrera

Hizkuntza-Politika hau onartu da euskararen erabilera sustatuko duen marko orokorra ezartzeko xedearekin, eta horrela, etorkizuneko ekintzak bideratuko dituzten helburu estrategikoak finkatuta uzteko:

### Helburuak

Lehendakaritza honek helburu bat du: **Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzen erabilera normalizatu bermatzea Pasaiako Portuko Agintaritzan.**

Eskubide horren erabilera arian-arian bermatzeko, beharrezkoak diren baliabideak esleituko dira eta egokiak diren neurriak hartuko; xede horrekin, **Hizkuntza Ofizialen Erabilera Kudeatzeko Sistema** ezarriko da.

Era horretan, **elebitasunaren** aldeko apustua eginez, **zerbitzuaren kalitatea hobetuko** dugu, eta **balio erantsi handiagoa** emango diogu Pasaiako Portuko Agintaritzaren lanari.

### Balioak

Balio hauetan oinarrituko dira Pasaiako Portuko Agintaritzako Lehendakaritza honek onartutako Hizkuntza-Politika eta ezarriko den Hizkuntza Ofizialen Erabilera Kudeatzeko Sistema:

- **Parte hartze kualifikatua:** helburua lortzeko, langile guztien parte hartzea behar da eta eskertuko da; bakoitzaren gaitasunaren, ezagutzaren eta antolamenduan duen kokapenaren arabera parte hartzea.
- **Malgutasuna** eta **aldaketa lasaia:** Pasaiako Portuko Agintaritzaren eta dibisio bakoitzaren egoera eta beharrei egokitu zaizkie helburuak eta epeak. Kultura eta antolaketa-aldaketek behar duten erritimoa zainduko da.
- **Begirunea:** begirunea pertsona orori, jarrera baikorrak eta eraikitzaileak bultzatuta. Inork ez du prozesua oztopatuko. Borondatezko parte hartzearen eta Hizkuntzak Kudeatzeko Sistema garatzeko egin beharreko derrigorrezko lanen arteko oreka bilatuko da.
- **Adostasuna:** borondate guztiak orekatzen dituen akordioa da aurrera jotzeko formularik egokiena; beti ere, errespetua izanik atal bakoitzak prozesuan dituen erantzukizun eta konpetentziei.
- **Zeharkako kudeaketa:** hizkuntzen kudeaketa Pasaiako Portu Agintaritzako kudeaketa eredian txertatu behar da eta ondorioz, arlo, sail eta dibisio bakoitzari eta bere arduradunari dagokio hizkuntza politikaren helburuak, balioak eta konpromisoak, eta orokorrean, Hizkuntzak Kudeatzeko Sistema bere arloan etengabe garatzea.
- **Euskararen Erabilera sustatzea da ardatza,** baina helburu hori lortzeko motibazioa, ezagutza eta erakundetzea ere landuko dira.
- **Gardena:** planaren zutabe garrantzitsua da eragile guztiek informazioa izatea. Komunikazioa da tresna eraginkorrena zalantzak, beldurrak eta aurreiritziak uxatzeko.

### Pasaiako Portuko Agintaritzaren konpromisoak

1. **Normaltasunez lan egin euskaraz** eta **gatzelaniaz**, eta gutxienez egungo legeak agintzen duena bete.
2. **Sustatu, babestu** eta helburuen arabera baliabideez **hornitu** euskararen barne eta kanpo erabilera, ezagutza eta erakundetzea indartzeko ekintzak.
3. **Garatu, ezarri** eta **mantendu** Hizkuntza Ofizialen Erabilera Kudeatzeko Sistema, eta horretarako beharrezkoak diren giza eta material-baliabideez hornitu.
4. **Txertatu** hizkuntzen erabilerari lotutako helburu, ekintza eta irizpideak egun dagoen kudeaketa ereduari, eta etorkizunean ezar daitezkeen sistema, politika eta estrategiei.
5. **Jakitera eman** Agintaritzan sortutako informazioa eta esperientzia herri-administrazioei, eta langile, erabiltzaile eta hornitzaile guztiei, eta horrela, saiatu ingurukoen jarreretan modu proaktiboan eragiten, eta euskararen erabilera sustatzeko elkarlanerako guneak garatzen.
6. Zuzendaritzak du plana garatzeko ardura, Egitasmoaren batzordea da horren motorra, eta **guztion erantzukizuna** da, arduradun eta langileona, nor bere egoeratik abiatuta, eguneroko eginkizunetan hizkuntzen trataerari begirunea izatea.

Eta adostutakoaren adierazgarri, dokumentua izenpetu da jarraian azaldutako lekuan eta egunean.

Pasaiako Portu Agintaritzaren Lehendakaria

Stua.: Lucio Hernando Albistegi

 <p>Pasaia Portua Puerto de Pasaia</p> <p>Pasaia Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Pasaia</p>	<b>PPAren HIZKUNTZA</b> <b>POLITIKAREN DOKUMENTUA</b> <b>DOCUMENTO DE POLÍTICA</b> <b>LINGÜÍSTICA DE LA APP</b>	<b>FHK-FGL-001</b> <b>Ber / Rev. 01</b>
	<b>Data / Fecha:</b> 2011/03/01	
	<b>Orrialdea / Página:</b> 2 / 2	

## POLÍTICA LINGÜÍSTICA DE LA AUTORIDAD PORTUARIA DE PASAIA

### Introducción

A fin de establecer un marco general para impulsar el uso del euskara, se aprueba esta Política Lingüística que establece los objetivos estratégicos que guiarán futuras actuaciones:

### Objetivos

Esta Presidencia tiene como objetivo **garantizar el uso normalizado de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca en la Autoridad Portuaria de Pasaia.**

Para ello se adoptarán las medidas oportunas y se arbitrarán los medios necesarios que garanticen de forma progresiva el ejercicio de este derecho; y con ese objetivo, se implantará un **Sistema de Gestión para el Uso de las Lenguas Oficiales.**

De este modo, apostando por el bilingüismo, se **mejorara la calidad del servicio**, y se le dará así **mayor valor añadido** al trabajo de la Autoridad Portuaria de Pasaia.

### Valores

La Política Lingüística aprobada por esta Presidencia de la Autoridad Portuaria de Pasaia y el Sistema de Gestión para el Uso de las Lenguas Oficiales que se implante se basarán en los siguientes valores:

- **Participación cualificada:** para la consecución del objetivo, se requiere y valora la participación de todas las personas, cada uno en la medida de su capacidad, conocimientos y posición en la organización.
- **Flexibilidad y cambio tranquilo:** los objetivos y los plazos se adecuarán a la realidad y necesidades de la Autoridad Portuaria de Pasaia y de cada uno de los servicios. Se respetarán los ritmos que necesitan los cambios culturales y organizacionales.
- **Respeto:** respeto a todas las personas, potenciando actitudes positivas y constructivas. Nadie obstaculizará el proceso. Se buscará el equilibrio entre la participación voluntaria y los trabajos necesarios para poder desarrollar el Sistema de Gestión Lingüística.
- **Acuerdo:** se considera que el acuerdo donde se equilibran las diferentes voluntades es la mejor fórmula para avanzar, respetando siempre las responsabilidades y competencias de cada órgano en el proceso.
- **Gestión transversal:** integración de la gestión lingüística en el modelo de gestión de la Autoridad Portuaria de Pasaia. Como consecuencia de ello, corresponde a cada área, departamento y división el desarrollo continuo de los objetivos, valores y compromisos de la Política Lingüística y del Sistema de Gestión Lingüística.
- **El eje principal es el fomento del uso del euskara**, pero para alcanzar ese objetivo se trabajaran también la motivación, la capacitación y la institucionalización.
- **Transparencia:** uno de los pilares fundamentales del plan es tener a todos los agentes informados. La comunicación es el instrumento fundamental para despejar dudas, miedos y prejuicios.

### Compromisos de la Autoridad Portuaria de Pasaia

1. **Trabajar con normalidad en euskara y castellano**, cumpliendo como mínimo con la legislación vigente.
2. **Impulsar, proteger y dotar** de los medios necesarios, acordes a los objetivos, las acciones que impulsen el uso (interno y externo), el conocimiento y la institucionalización del euskara.
3. **Desarrollar, implantar y mantener** un Sistema de Gestión para el Uso de las Lenguas Oficiales, dotando para ello los recursos, tanto humanos como materiales, necesarios.
4. **Integrar** los objetivos, acciones y criterios relacionados con el uso de los idiomas en el actual modelo de gestión, y en los sistemas, políticas y estrategias que puedan implantarse en un futuro.
5. **Dar a conocer** toda la información y experiencia generada en la Autoridad, a las diversas administraciones públicas, y a todas las personas que componen la plantilla, usuarios/as y proveedores, con intención de incidir proactivamente en las actitudes del entorno y desarrollar áreas de colaboración para impulsar el uso del euskara.
6. La Dirección tiene la responsabilidad de desarrollar el plan, la Comisión del proyecto es el motor de este, y **compete a todas las personas**, partiendo cada uno desde su realidad, respetar el uso de los idiomas en las tareas diarias.

Y como muestra de este acuerdo alcanzado, se firma el documento en el lugar y fecha que se indica a continuación:

En Pasaia, a 1 de junio de 2011  
El Presidente de la Autoridad Portuaria de Pasaia

Fdo.: Lucio Hernando Albistegi